

ATENTATUA. Ertzaintzak jakinarazi duenez, leherkariak 'titadine' markako dinamita zuen

Bi kilo dinamita zituen Zarauzko Gizarte Segurantzaren lehertu bonbak

Udaleko Bozeramaileen Batzordeak dio atentatuak «errugabeen bizia arriskuan» jarri duela

Agentziak | DONOSTIA

Bi kilo dinamita zituen leherkari batek eztanda egin zuen astearte gauean Zarauzko Gizarte Segurantzaren bulegoan. Leherketa gaueko 00:20an izan zen Araba kaleko osasun etxearen ondoan. Leherketak ez zuen zauriturik eragin, baina bai kalte material handiak, bulegoko fatxadak eta barruan. Ondoko osasun etxean eta inguruan aparkatuta zeuden lau auto ere harrapatu zituen eztandak.

Ertzaintzak jakinarazi duenez, lehergailua *titadine* markako dinamitaz osatuta zegoen, eta erlojua eta abiarazle bat zituen. Eusko Jaurlaritzako Herriaindako sailak ukatu egin zuen kale borrokarekin zerikusia zuenik, eta egilea ETA izan daitekeela adierazi zuen.

Zarauzko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak PP, PSE-EE, EAJ eta EAK izenpetutako idatzi bat kaleratu zuen atentatua gaitzetsiz. Bertan, aipaturiko alderdi politikoak «poztu» egin ziren atentatuak ez zuelako zauriturik eragin. Hala ere, atentatuak «errugabeen bizia arriskuan jarri» zuela salatu zuten.

«Beldurraren estrategiaren adierazgarria da», dio Udalak

Zarauzko Udaleko ordezkarien ustez, gertakari hori «herritarren artean terroristek zabaltu nahi duten mehatxu eta beldurraren strategiaren beste adierazgarri bat da». «Gauetan era-soak, egon daitezkeen biktimei mespretxua eta bizilagunen ar-



JUAN HERRERO / EFE
Zarauzko Gizarte Segurantzaren bulegoan kalte handiak eragin zituen leherketak.

teko alarma; horiek dira gure herriaren bizitza normalizatu eragotzi nahi duten aukeratu dituzten formulak», azaldu zuten bozeramaileek.

«Arazoa bakarrik Zarauzko bizilagunei» eragin dietela ohartarazi zieten atentatuaren egileei. «Pertsonen giza eskubi-

deak defenditzen eta herriaren normalizazioaren alde lan egiten jarraituko dugu, eta ez gara batere mugituko jarrera horretatik», adierazi zuten.

ELA sindikatuko Zerbitzu Publikoetako Federazioak ere gaitzetsi egin zuen atzoko atentatua, eta dei egin zion ETARI «he-

rriaren gehiengoaren nahia onar» dezan, «borroka armatua utz dezala eskatu diolako».

Gipuzkoako PPko presidente Maria San Gilek esan zuenez, atentatua «beldurraren diktadura ezarri eta Euskadi suntsitu nahi dutenen arrazoi ezaren beste adierazgarri bat da».

EB-IU. Hamahiru pertsonak osatuko dute Madrazoren taldea Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailean

Madrazoren ustez, EB-IU Jaurlaritzan sartzeak «akuilu gisa» balio dezake PSE-EEren estrategia «azkarrago» aldatzeko

Agentziak | BILBO

Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu berriak atzo *Efe* berri agentziari eskainitako elkarrizketan adierazi zuenez, EB-IU Eusko Jaurlaritzan sartzeak «akuilu gisa» balio dezake PSE-EEk bere estrategia norabidez «azkarrago» aldatzeko. «PPren atzetik jarraitzen duten artean, euskal gizartearen gehiengoaren boronda-

tetik urrunduko dira, eta alderdiaren intereserako ere ez litza-teke komenigarria izango PPri segitzen jarraitzea», gaineratu zuen Madrazok. Sailen banaketaren ondorioz EAJ eta EAren artean sortutako ezinegonari garrantzia kendu zion. «Guztia amaitzea» eta Gobernuaren barruan «egonkortasunaren garai berri bat irekitzea» espero du EB-IUko sailburuak.

«Gehiengo sozial handiago

bat irabazteko» beharra azaldu zuen EB-IUko buruzagiak, «eta hala, bi muturrek euren jarrerak mugitzea, gizartearen elkarriketa eta biolentziaren alde dagoela ikusten duten heinean».

Madrazoren taldea hamahiru lagunek osatu dute. Bi sailburorde izango dira: Etxebizitza-koa eta Gizarte Gaietako. Lehenengo Sailak bi zuzendari izango ditu: Ondasuna eta Lurraren arlokoa, eta Antolaketa

Ekonomikokoa. Gainera, aholkulari bat izango da Lurraren Legea osatzeko. Gizarte Gaietarako Sailean lau zuzendari izango dira: Garapenerako Lankidetzakoa, Drogamenpekotasun-koa, Gizarte Ongizatekoa eta Immigrazioa.

Bestalde, EB-IUren gobernu ituna «akatsa» dela esan zuen atzo EPK-k: «Oso zaila izango du bere proiektua eskuinekoak diren ideiekin uztartzea».

EUROPAKO BATASUNA

Batzordeak oniritzia eman dio bilatze eta atxilotzeko agindu europarrari

Agentziak | BRUSELA

Europako Batzordeak, bilatze eta atxilotzeko agindu europarra indarrean jartzeko proposamena onartu zuen atzo egindako bileran, eta tresna hori Europako Batasuneko (EB) lankidetzaren judizialaren «ardatza» izango dela adierazi zuen. Hala, agindua EBk «mehatxu terroristar» berriei erantzuteko egokia izango dela esan zuen Justizia eta Barne komisario Antonio Vitorino potugaldarrak.

Horrekin batera, «ekintza terroristaren definizio komuna» zehazteari eta ekintza horiek egiten dituzten guztientzako zigorrek elkarren artean adosteari buruzko proposamenak onetsi zituzten Europako Batzordeko kideek.

Vitorinok Europako Parlamentuaren aurrean egindako agerraldian adierazi zuenez, beharrezkoa da EBk tresna horiek guztiak baliatzea «terrorismoaren aurrean ahots bakarra izateko», are gehiago kontuan hartzen bada «mehatxua berriak ditugula aurrean eta terroristek erabilitako tresnak gero eta sofistikatuagoak direla».

Europako Batzordeko ordezkariaren berbetan, Batasuneko gobernuak atzo onartutako proposamenen xedea «terrorismoaren» aurkako neurrietan «harmonizazioa» lortzea da.

Gaur, Justizia eta Barne ministroen bilera

Komisarioak iragarri zuenez, Batasuneko Justizia eta Barne ministroek gaur egingo duten goi bileran eztabaidatuko dituzte Europako Batzordeak ontzat emandako proposamen horiek, «eta neurri hauen alde azalduko direla espero dugu, gure kideen arteko elkarlan sendagoari esker terrorismoaren aurkako borroka gero eta eraginkorragoa izan dadin».

Izan ere, Vitorinoren ustez, «terrorismoa nazioarte mailan ari diren sareen ondorioa da», eta gainera «terroristak estatuen arteko tratu juridikoan dauden aldeetat baliatzen dira, batik bat terrorismoa zuzenbide nazionalen sartuta ez da-gonean».